

**KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, ESKAINTZA ONURAGARRIENA ZEIN DEN KONTRATATZEKO EGINA. HORREN XEDEA DA ARBIZU-LAKUNTZAKO KATTUKA HAUR ESKOLARI JANARIZ HORNITZEKO ZERBITZUA EMATEA, PROZEDURA **IREKIAREN BIDEZ**.**

### **1.- KONTRATUAREN XEDEA**

Funtsezko baldintza hauen xedea da alderdien eskubide eta betebeharren hitzarmenak eta baldintzak finkatzea. Arau hauek arautuko dituzte Arbizu eta Lakuntzako 0-3 urteko KATTUKA zentroari kontsumorako erabat eginda egonen den janariz hornitzeko kontratuaren alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoak, betiere Arbizu eta Lakuntzako Udalek kontratistari emanen dizkion zehaztasunei jarraikiz.

Aldez aurretik behar diren jarduketa guztiak egin beharko ditu kontratistak, kontratuaren xedea erabat betetzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 Araudiak, azaroaren 5ekoak, onartu zuen Kontratuen Hiztegi Komuna (CPV), eta, geroago, Batzordearen 2151/2003 Araudiak, abenduaren 16koak, aldatu zuen. Hiztegi horren arabera, kontratuaren xedeari dagokion kodifikazioa ondokoa da: 93411000-2 "Ostalaritza zerbitzuak".

Kontratatzeko prozedura ondoko printzipioei jarraikiz egingen da: berdintasuna, bereizkeriarik eza, gardentasuna, publikotasuna, eta konkurrentzia librea. Era berean, kontratuaren alderdiek ondokoei egingen diete men: klausulen plegu honen eta erantsitako dokumentuen xedapenak, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta Nafarroako Toki Entitateen kontratazioak arautzen dituzten gainerako xedapenak.

Kontratua, horri erantsitako dokumentuak edo hitzartutakoa gauzatzeko aplikatzen ahal den edozein plegu edo arau ezagutu ez arren, kontratistak nahitaez bete beharko du guztia.

Kontratua egiteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da; kontratuaren unitate kudeatzailea Ogasun Alorra; eta administratiboa Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.

### **2. ESLEIPENAREN BIDERATZEA, PROZEDURA ETA IRIZPIDEA.**

- Bideratzea: Ohikoa
- Prozedura mota: Irekia. Europar Batasuneko gutxieneko zenbatekotik beherakoa..
- Esleitzeko irizpidea: Eskaintza onuragarriena.

### **3.- KONTRATUAREN IRAUPENA.**

Kontratuak **hamaika hilabete** iraunen du, 2015eko irailaren 10etatik 2016ko uztailaren 22 arte, gutxi gorabehera, Arbizu eta Lakuntzako KATTUKA Haur Eskolaren eskola egutegia zein den. Alderdiak ados egonda, kontratua **luzatu** ahalko da antzeko epetan, eta kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izanen da **hiru urtekoa** baino luzeagoa izan

Aurrekoa kontuan harturik betiere, esleipendunak zerbitzuak ematen jarraitu beharko du, harik eta kontratu berri bat indarrean sartu arte.

### **4. KONTRATUAREN BALIOETSITAKO KOSTUA.**

Hamaika hilabeteko eperako, kontratua 19.700,00.-€ (BEZ kanpo) kostatzen dela balioetsi da.

## **5.- LIZITAZIO MOTA.**

5.1.- Eskaintzaren prezioa zehazteko, menu baten kostua hartuko da kontuan, eta honako baldintza hauek izanen ditu:

Kontratua gauzatzeko baldintzak eta egunero izanen den gutxi gorabeherako jankide kopurua (27) kontuan hartuta, kontratuaren gehieneko prezioa honako hau izanen da, jankide bakoitzeko eta garraioa barne:

- **Menua: 3,80 euro.**

Prezio horren barnean daude kontratuaren xedea behar bezala emateko gastu guztiak, BEZ kanpo.

5.2.- 2015eko ekitaldiko Ohiko Aurrekontuan behar adinako kreditu egokia dago, aipaturako zerbitzu publikoaren kudeaketa finantzatzeko.

## **6.- ORDAINTZEKO ERA.**

Hilero, esleipendunak behar den faktura aurkeztuko du Arbizuko Udaleko Erregistro Orokorrean, kontratatutako zerbitzuen urteko kopuruaren hamaikena ordaintzeko, edo, beharrezkoa bada, ondoko bien biderketa: emandako menuak bider menu bakoitzaren prezioa.

Faktura esleipendunaren kontu korrontean egingen da, banku transferentzia bidez. Faktura aurkeztu eta HOGEITA HAMAR EGUN NATURALEKO EPEAN ordainduko da, eskumena duen alorraren oniritzia jaso ondoren betiere.

Esleipendunak eskubidea izanen du zordundutako kopuruaren berandutza interesak kobratzeko, indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzetan betiere.

## **7.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.**

Harik eta kontratu berri bat egin arte, esleipendunak ez du prezioak berraztertzeke eskubiderik izanen, ez bada kontratu hau luzatzean. Horretan aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen ahal den Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketa.

## **8.- ZERBITZUA EMATEA, EGINKIZUNAK.**

Hornitzeko erabiliko diren elikagaiak lehen kalitatekoak izanen dira.

Menuak ondokoak izan beharko ditu:

- Astean bitan arraina.
- Astean bitan barazkiak (osorik), edo behin barazki osoa eta behin purean.
- Menuan ez da frijiturik, saltxitxarik edo patata tortillarik egonen.
- Aberastutako pureak jarri ahalko dira, jankideen adinaren arabera.

Kontratistak ondoko jarduketak egingen ditu bere kontuan: janariak erosi eta egin, Ikastetxera behar bezalako baliabideetan garraiatu, analisi bakteriologikoa, erantzukizun zibileko aseguru eta orientazio dietetikoa.

0-3 urte bitarteko Ikastetxeak kontratistari esanen dio egin beharreko zerbitzu kopuruan zer aldaketa egonen den, hornitzeko ordutegiak eta menuaren aldaketak (dieta bigunak...), halakorik beharko balitz.

Beranduenez, 11:00etan emanen da zerbitzua.

## **9.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.**

Pertsona natural eta juridikoei sinatu ahalko dituzte kontratuak, betiere Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, xedatutakoari jarraikiz.

## **10.- LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.**

Esleipendunak kontratua gauzatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa egiaztatu beharko du, hau da, enpresak egoera ekonomiko eta finantzario egokian egon beharko du, ekonomia edo finantza alorreko gorabeherengatik kontratua gauzatzeko arriskurik egon ez dadin.

Kontratu honetan egiaztapena egiteko, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Finantza entitateek egindako aitortpenak eta, profesionalak badira, arrisku profesionalen kalte-ordainak estaltzen dituen aseguru baten egiaztapena.

Justifikatutako arrazoi batengatik lizitatzailerak ezin baditu eskatutako erreferentziak aurkeztu, entitate kontratatzailerak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumenturen bidez egiaztatu ahalko du bere kaudimena (13. artikuluan aurreikusia edo ez). Kasu horretan, funtsezko betebeharrak materialak ematen diren egiaztatuko da.

## **11.- LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA.**

Esleipendunak kontratua gauzatzeko kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu beharko du, ondoko dokumentuak aurkeztuta:

- Azken urtean egindako horniketa garrantzitsuenen zerrenda, horien prezioa, data eta destinoa (publikoa edo pribatua) adieraziz, zuzenbidean onartutako beste edozein frogarekin bermatua.

Beren kaudimena egiaztatzeke, lizitatzailerak beste enpresa batzuen kaudimena hartu ahalko dute oinarri, horiekin duten lotura juridikoaren izaera edozein izanda ere.

Sozietate talde bateko pertsona juridiko gainartzaileen kasuan, taldeko sozietateak hartu ahalko dira kontuan, baldin eta kontratuak betearazteko behar diren sozietate horien baliabideak egiazki eskura dauzkatela frogatzen badute pertsona juridiko gainartzaile horiek.

Kaudimena azpikontratazioen bidez egiaztatzen bada, lizitatzailerak dokumentu bat aurkeztu beharko du, kontratua gauzatzeko azpikontratazioekin konpromiso formala duela ziurtatzen duena, eta kasu horretan horien guztien kaudimena batuko da. Era berean, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 13. eta 14. artikuluetan xedatutako forma eta baldintzetan egiaztatu beharko du azpikontratazioen kontratua gauzatzeko behar adinako baliabideak badituztela.

Lotutako enpresei dagokienez, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 16. artikuluan xedatutakoari egiten zaio men.

Justifikatutako arrazoi batengatik lizitatzailerak ezin baditu eskatutako erreferentziak aurkeztu, entitate kontratatzailerak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumenturen bidez egiaztatu ahalko du bere kaudimena (14. artikuluan aurreikusia edo ez). Kasu horretan, funtsezko betebeharrak materialak ematen diren ala ez egiaztatuko da.

Era berean, azpikontratazioaren xede izanen diren kontratuaren prestazioak zehaztu beharko dira, eta azpikontratazioen zerrenda zehatza aurkeztu beharko da, 6/2006 Foru Legearen 15. artikuluan xedatutako baldintzetan betiere.

Azpikontratazioak aldatu ahalko dira, baina alde aurretik egiaztatu beharko da horien ordez sartuko direnak badutela gutxienez aurrekoen adinako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko edo profesionala, entitate kontratatzaileraren berariazko baimena izanda.

Halere, kontratua formalizatu ondoren, kontratuaren xede nagusiaren prestazio osagarriak azpikontratatzea onartuko da, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badira:

a) Administrazioari idatziz jakinaraztea kontratuaren esleipendunaren eta azpikontratatzailearen artean sinatutako kontratua. Kontratu sekretuetan edo isilpekoetan, edo kontratua gauzatzeko segurtasun neurri bereziak hartu behar diren kasuetan, azpikontratazioak berariazko baimena izan beharko du.

b) Azpikontratazioaren xede diren prestazioen zenbatekoa ez da kontratuaren balioaren %50 baino gehiago izanen.

c) Kontratuaren esleipendunaren eta azpikontratatzailearen arteko kontratuak aurreikusitako baldintzak ez badira Foru Legeak kontratatzailei prezioa ordaintzeko xedatzen dituen baldintzak baino okerragoak.

d) Azpikontratatzaileak kontratatzeko bazterturik ez dagoela egiaztatzen duen aitortpen bat aurkeztu beharko du.

Lizitatzailea esleipenduna suertatzen bada, kaudimen teknikoa edo profesionala eta ekonomikoa edo finantzarioa —berea eta azpikontratatzaileena— egiaztatatu beharko ditu, Plegu honetan ezarritako baldintzetan.

## 12.-PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Lizitatzaileek Arbizuko Udaleko Erregistroan aurkeztu ahalko dituzte beren proposamenak, 2015/08/13ko 12:00ak arte.

Era berean, lizitatzaileek bere proposamenak aurkeztu ahalko dituzte Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako lekuetan, aurreko atalean aurreikusitako epearen barnean.

Proposamenak postaz bidaltzen badira, enpresariak Posta Bulegoan egindako bidalketaren data egiaztatatu beharko du, baita kontratazio organoari eskaintzaren bidalketa jakinarazi ere, egun berean telegrama edo faxa bidalita. Bi baldintzak aldi berean bete ezean, ez da proposamena onartuko, baldin eta kontratazio organoak epearen data eta ordua bukatuta jasotzen badu proposamena. Halere, zehaztutako dataren ondoko 2 egun naturalen buruan, dokumentazioa jaso ez bada, hori ez da inolaz ere onartuko.

Proposamenak proposamen ereduarekin batera (I. ERANSKINA), behar bezala beteta, gutun-azal bakarrean aurkeztuko dira, eta bertan beste hiru sartuko dira. Guztiek itxita egon beharko dute, eta lizitatzaileak sinatuta. Ondoko izenburua eta dokumentuak izanen dituzte:

- 1. Gutun-azala "Dokumentazio pertsonala":

a) Lizitatzailearen erantzukizunpeko aitortpena, kontratatzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko (II. ERANSKINA).

Aldi berean parte hartzen duten lizitatzaileek proposamena sinatzen badute, kide bakoitzak aurkeztu beharko du zehaztutako aitortpena.

Geroago, esleipenduna suertatzen denak egiaztatatu beharko du funtsezko baldintza hauen 17. klausulan eskatutako dokumentuak badituela eta baliagarriak direla, esleipena jakinarazi eta zazpi eguneko epean gehienez. Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, kontratua baliogabetuko da, esleitzaileri entzun ondoren, eta lizitazioarako jarritako bermeak kenduko zaizkio edo kontratuaren balio zenbatetsiaren %2ko zigorra ordaindu beharko du, baita kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gaineratik eragindako kalte eta galerengatik.

- b) Lizitatzailleen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzeko dokumentuak, 10. eta 11. klausuletan xedatutako baldintzetan.
  - c) Helbide elektronikoa, legeak agintzen dituen jakinarazpenak egiteko (III. ERANSKINA). Betebehar hori bete ezean, interesdunak ezin izanen du kontratazio publikoari dagozkion gaietan erreklamaziorik aurkeztu. Izan ere, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 210. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa kontuan hartuta, interesduna noizbait lizitaziotik kanpo gelditzen bada edo haren asmoari kalte egiten bazaio, bideratzen ari diren edo behin betiko egintzen aurka ezin izanen du ezer egin.
- "2. gutun-azala: Proposamen tekniko"  
Lizitatzailleak dakarren dokumentazio osoa izanen du barnean, Funtsezko Baldintza hauen 16. klausulan xedatutako esleipen irizpideak baloratzeko eta puntuatzeko, eskaintza ekonomikoarena izan ezik.
  - "3. gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa"  
Eskaintza ekonomikoa IV. ERANSKINEAN agertzen den ereduari jarraikiz aurkeztu beharko da. Bakarra izanen da, eta kanpoan geldituko da beti Balio Erantsiari buruzko zergaren zenbatekoa.  
Eskatutako dokumentuak jatorrizkoak izanen dira, edo, bestela, notario batek edo administrazioak kautotutako kopiak.

### 13.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA DOKUMENTAZIOA ALDEZ AURRETIK KALIFIKATZEA

Kontratazio Mahaia honela osatuko da:

***Lehendakaria:** Karmele Marañon Chasco, Arbizuko Udaleko alkatea, edo hura ordezkatzeko duen zinegotzia.*

***Mahaikideak:***

- *Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza, Lakuntzako Udaleko alkatea. Ordezkoa*
- *Izaskun Igeltz Lazkano, Lakuntzako Udaleko zinegotzia, edo hura ordezkatzeko duen zinegotzia.*
- *María Barkos Berruezo, Lakuntzako Udaleko idazkaria edo hura ordezkatzeko duen zinegotzia.*
- *Ángel M<sup>a</sup> Lag Amirola, Arbizuko idazkaria, edo hura ordezkatzeko duen zinegotzia.*

Barneko egintza batean, "Dokumentazio Pertsonala" izeneko gutun-azalak ireki eta aztertuko dira. Eskaintza bakoitza kalifikatuko da, eta horren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, tekniko edo profesionala, baloratuko dira, eta eskatutako dokumentazioa denboran eta forman behar bezala aurkeztu duten lizitatzailleak onartuko diren ebatziko da. Era berean, behar den aktan idatzita utziko dira jarduketak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 54.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aurkeztutako dokumentazioan akatsak badaude, edo, bestela, osorik ez badago, hiru eguneko epea emanen da akatsak zuzendu ahal izateko. Eskatutako dokumentazioa Arbizuko Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko da, ezartzen den epearen barnean.

#### 14.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK IREKITZEA

Dokumentazio pertsonala kalifikatu ondoren, Kontratazio Mahaiak Proposamen Teknikoaren 2. gutun-azala irekiko du, lizitazioan onartu diren enpresa horiei esleipen irizpideen puntuak emateko xedez, eskaintza ekonomikoa izan ezik.

Aurkeztutako eskaintzaren bat iluna bada edo zuzena ez bada, azalpen osagarriak eskatu ahalko dira.

Kontratazio Mahaiak nahi dituen txostenak eskatu ahalko ditu, baldin eta kontratuaren xedeari lotuta badaude.

#### 15. PROPOSAMEN EKONOMIKOAK IREKITZEA

Balorazioa egin ondoren, **kontratazio atarian** argitaratuko da eskaintako prezioa —C gutun-azaleko "Eskaintza Ekonomikoa"—, eta jendaurrean zein lekutan, egunetan eta ordutan irekiko den agertuko da. Era berean, lizitatzailerak bidaliko zaie posta elektronikokoaren bidez, alde aurreko **hirurogeita hamabi** eguneko epean gutxienez.

#### 16.- ESLEITZEA

Puntu gehien lortzen dituen eskaintza proposatuko da, horri esleipena emateko, klausula honetan adierazitako irizpideei jarraikiz betiere.

Kontratazio organoak, alde aurretik behar diren txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratua esleitu du, bost eguneko gehieneko epean, eskaintza ekonomikoaren gutun-azala irekitzen denetik aurrera. Betiere kontuan hartuko ditu jarraian zehazten diren irizpideak, horren balio ekonomikoa soilik aintzat hartu gabe, eta prozedura hutsik uzteko eskubidearen aukera baztertu gabe. Kasu orotan arrazoitu beharko du bere erabakia.

Hala eta guztiz ere, interes publikoa dela eta, esleitu gabe utzi ahalko da lizitazioa, nahiz eta aurkeztutako eskaintzak Plegu honekin eta baldintza teknikoekin bat etorri. Esleitu gabe uzteko, gorabehera faktiko edo juridikoak gertatu beharko dira, baldin eta modu logiko eta arrazoizkoan interes horren prebalentzia inposatzen badute, betiere kontratuak estali behar dituen beharrak kontuan hartuta.

Ebatzi ondoren, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie esleipena. Era berean, Arbizuko Udaleko iragarki ohelean argitaratuko da.

Esleipendun gertatu ez diren lizitatzailerak "Dokumentazio Pertsonala" izeneko 1. gutun-azala jaso ahalko dute bi hilabeteko gehieneko epean, esleipenaren jakinarazpena egiten denetik aurrera. Zehaztutako epean dokumentazioa hartzen ez badute, ez dutela nahi ulertuko da, eta, ondorioz, ez dute hura jasotzeko eskubiderik izanen. Orduan, Arbizuko Udalak deuseztatu eta birziklatuko du dokumentazio hori, eta horretarako ez da alde aurretik ohartarazi beharko.

Esleipendunak hautatzeko, ondoko esleipen irizpideak hartuko dira kontuan:

a) **Eskaintza ekonomikoa:** Gehienez, **20 PUNTU** lortu ahalko dira.

Eskaintza ekonomikoa modu proportzionalan baloratuko da, eta eskaintza ekonomiko merkeenari puntu gehien emanen zaizkio, eta gainerakoei alderantzizko proportzioan, ondoko formula aplikatuta:

$$\text{Prezioaren balorazioa} = \frac{\text{Eskaintako gutxieneko prezioa} \times 20}{\text{Eskaintako prezioa}}$$

Sobera baxuak diren ezohiko eskaintzak ez dira kontuan hartuko. Halakotzat joko dira kontratuaren zenbatekoa baino hogeita hamar puntu portzentual baxuagoak diren eskaintzak.

b) **Proposamen Teknikoa.** Gehienez, **80 PUNTU** lortu ahalko dira.

Honako hauek baloratuko dira:

B.1. Dieten dibertsitatea: 50 puntu

Elikagaien barietate kualitatiboa eta horien dibertsitate nutrizionala baloratuko dira. Era berean, kontuan hartuko da alergia edo intolerantziengatik, edo kultur edo erlijio gaiengatik, menu desberdinak izateko aukera.

B.2. Zonaldeko hornitzaileak: 30 puntu.

c) Berdinketa gertatzen bada: Aurreko irizpide guztiak aplikatu ondoren, bi lizitatzaileren artean edo gehiagoren artean bukaerako puntuazioan berdinketa gertatuko balitz, Kontratazio Mahaiak ondoko irizpideak erabiliko ditu berdinketa ebazteko:

1. Minusbaliotasuna duten langileen portzentaje handiena, betiere hura %3 baino txikiagoa ez bada.
2. Behin-behineko langileen portzentaje txikiena, betiere hura %10 baino gehiago ez bada.
3. Genero gaietan jardunbide egokiak izatea.
4. Zozketa.

Irizpideak azaldutako ordenan aplikatuko dira, eta bakar bat hartuko da kontuan, baldin eta aurrekoa aplikatuta hasierako berdinketa mantentzen bada. Ondorio horietarako, Kontratazio Mahaiak behar den dokumentazioa eskatuko die parte hartzen duten enpresei, eta 5 eguneko epea emanen die hura ekartzeko.

## 17.- FORMALIZATU BAINO LEHENAGOKO DOKUMENTAZIOA.

Esleipena eman eta 3 egun naturaletara gehienez, esleipenaren proposamena izan duen lizitatzailleak ondoko dokumentuak badituela eta baliagarriak direla egiaztatu beharko du.

a) Izaera juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, hura eratzeko idazkia aurkeztu beharko du, eta, behar denean, aldaketaren idazkia, Merkataritza Erregistroan izena behar bezala emanda, baldin eta aplikatzen ahal den merkataritza legediari jarraikiz baldintza hori eskatzen bada. Halakorik behar ez bada, eratzeko edo aldatzeko dokumentua, estatutuak edo eratze egintza aurkeztu beharko da. Bertan, jarduera erregulatzen duten arauak agertu beharko dira, behar den Erregistro ofizialean izena emanda, beharrezkoa bada.
- Lizitatzaillea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko du.

b) Lizitatzaillearen izenean proposamen ekonomikoa sinatzen duen pertsonaren aldeko ahalordea eta pertsona ahalduaren Nortasun Agiri Nazionala. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan izena emanda agertu beharko du, baldin eta aplikatzen ahal den merkataritza legediari jarraikiz baldintza hori eskatzen bada.

c) Lizitatzaillearen deklarazioa, edo, beharrezkoa bada, horren ahalordearena edo ordezkariarena. Bertan, horren erantzukizunpean aitortu beharko da enpresa edo administrazioaileak ez dutela lizitazio prozeduratik baztertua izateko Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 18. eta 20. artikuluek aipatzen duten kausaren bat.

d) Zerga betebeharrak:

- Urteko ekitaldiari dagokion alta eta, beharrezkoa bada, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria eta, horrekin batera, zerga horretan baja eman ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitortpen bat.
- Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egiaztatzea eta, gainera, lizitatuaren zerga betebeharrak non izan eta Administrazio Publikoen organo eskudun horiena. Zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatu beharko dute egiaztatze horiek, eta sei hilabete lehenago gehienez emanda egon beharko dira proposamenak aurkezteko epea bukatu baino lehenagotik.

e) Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, ondokoak egiaztatzen dituenak: Gizarte Segurantzaren sistemaren izena emanda agertzea, langileak afiliatuak izatea eta alta emanda agertzea, behar diren kotizazio dokumentuak aurkezteak izatea eta indarreko xedapenek Gizarte Segurantzari ordaintzeko ezartzen dituzten betebeharrak egunean izatea (lizitatuaren bere aplikazio esparruaren barnean nahitaez ez dagoenean salbuespena izanen da). Egiaztatzea sei hilabete lehenago gehienez emana beharko da, proposamenak aurkezteko epea bukatu baino lehenagotik.

f) Lizitatuaren adierazpena, edo horren ahalduaren edo ordezkariaren, horren erantzukizunpean emanda, enpresak laneko segurtasuna eta osasuna zaindu eta laneko arriskuei aurrea hartzeko betebeharrak, indarra duten xedapenetan ezarritakoak, betetik dituela dioena.

g) Batera parte hartzen duten lizitatuak sinatutako proposamenak aurkezteko badira, parte-hartze horretarako agiri pribatu bat erantsi beharko da. Bertan lizitatuak batera aurkeztu nahi dutela adierazi beharko dute. Era berean, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu beharko dute. Parte hartzen duten enpresek eta aipatutako ahalduak sinatu beharko dute dokumentua.

h) Atzerriko enpresek aurkeztu beharko dute edozein mailako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mende jarriko direla dioen adierazpena, kontratutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako. Era berean, hala gertatzen denean, lizitatu edo hautagaiari dagokiokeen jurisdikzio foruari uko egiten diotela aurkeztu beharko dute.

Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatuaren Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden merkataritzako sozietate, kooperatiba eta laneko sozietateen kasuan, lizitatuak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko dokumentaziorik aurkeztu beharko, baldin eta aurkezteko baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena.

## 18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera **bost egun baliouduneko** epearen barruan gehienez, baldin eta bide administratiboan kontratua bertan behera uztea ebatzi ez bada.

Aldez aurretik kontratuaren balioaren **%4ko bermea** eratu beharko da, kontratuaren betebeharrak betetzeko xedez, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 95. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Berme hori kontratistaren betebeharrari lotuta egonen da berme-epea bukatu arte; bereziki, berandutzagatik zigorrak ordaintzeko eta kontratua gauzatu bitartean kontratistak eragin ditzakeen

kalte eta galeren konponketa bermatzeko izanen da. Era berean, kontratistak betebeharrak ez betetzeagatik kontratua baliogabetzen bada, bermea atxiki ahal izanen da, 125.3 artikuluko xedatutakoari jarraikiz.

Bestalde, kontratua formalizatu baino lehen esleipendunak eman beharko du erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiria. Horren polizak 160.000 eurokoa izan beharko du gutxienez.

Kontratistari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua behar den epean formalizatzen ez bada, Kontratazio Organoak bi aukera izanen ditu: kontratua baliogabetzea, interesatuari entzun ondoren, esleipendunak kontratuaren balio zenbatetsiaren %2ko zigorra ordaintzea, eta kalte-ordain osagarria eskatzea portzentaje horren gaineratik eragindako kalte eta galerengatik; edo beste epe bat ematea, luzaezina, kontratua gauzatzeko, eta kasu horretan kontratua gauzatzean hura atzeratzen den kasuetarako 4. klausularen zigor araubidea aplikatuta.

#### **19.- GIZARTE ETA LAN BETEBEHARRAK BETETZEA.**

Kontratistak zerga, lan, gizarte segurantza eta lan eta osasun alorretan indarrean dauden arauak ezarritakoa beteko du, eta, horiek bete ezean, Udalak ez du horren gaineko inolako erantzukizunik izanen.

#### **20.- KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK ETA ZERGAK.**

Kontratistak ondokoak ordaindu beharko ditu: lizitazioaren iragarpenak, kontratua formalizatzea, baimenak eta zergak, baldin eta zerbitzua emateko beharrezkoak badira.

#### **21. ZIGORREN ERREGIMENA.**

21.1.- Kontratistak jarraian eta etengabe eman beharko du, zerbitzua plegu honen hirugarren klausulak ezarritako epean.

21.2.- Kontratistak kontratuko betebeharrak bete ezean, Kontratazio Organoak behar den espedienteari emanen dio hasiera, eta, bertan, kontratistari entzunen zaio ebazpena eman baino lehen. Era berean, jarraian zehazten diren zigorrak ezarri ahalko dira, kontratua gauzatzean bidaltzen den hurrengo fakturatik kenduko direnak.

Hona hemen arau-hauste larriak:

- a) Ezarri den eguneroko prestazioa ez betetzea, esleipendunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b) Zerbitzuari uztea.
- c) Argi eta garbi zerbitzuak irregularki edo gaizki ematea.
- d) Zerbitzuaren alorrean Administrazioak emandako aginduak eta argibideak ez betetzea.
- e) Udalak egin beharreko ikuskatze eta behatze lanei uko edo aurre egitea.
- f) Zerbitzuko langileek erabiltzaileekin izandako gertakariak.
- g) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea edo haietan berriz erortzea.
- h) Plegu honetan, preskripzio tekniko partikularren pleguan eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzan jasotzen diren baldintzak ez betetzea, baldin eta zerbitzuaren kalitatea funtsean murrizten bada.

Arau-hauste larriak egiten badira, 300,01.-€ eta 600,00.-€ bitarteko isuna ezarriko da.

Hona hemen arau-hauste arinak:

- a) Lanetan segurtasun eta osasun neurriak ez betetzea.
- b) Lehenago aurreikusi ez direnak, baldin eta plegu honetan eta preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako baldintzen kalterako badira.

c) Esleipendunak aurkeztutako eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea, baldin eta funtsezkoak ez diren alderdietan zerbitzuaren kalitatea murrizten bada.

Arau-hauste arinak egiten badira, 60,00.-€ eta 300,00.-€ bitarteko isuna ezarriko da.

21.2.- Behar bezala ez betetzeagatik ezarritako zigorrak ez dira inolaz ere izanen zerbitzuaren aurrekontu osoaren %20 baino handiagoak. Beraz, goreneko muga hori gainditzen bada, kontratua baliogabetu eta fidantza galduko da.

21.3.- Aipatutako zigorrak jarri baino lehen behar den prozedura bideratuko da. Ildo horretatik, dagokion zigorra jartzeko izan den gertakaria egiaztatuta, esleipendunari jakinaraziko zaio, zazpi eguneko epe luzaezinaren barnean bere eskubidea defendatzeko egoki jotzen duena idatziz adieraz dezan.

Epe hori iraganda, Udalaren organo eskudunak, bere zerbitzu teknikoek txostena emanda eta esleipendunak erantzun edo ez, egoki jotzen duen ebazpena emanen du. Ebazpena esleipendunari jakinaraziko zaio, ebazpenak zehazten duen epearen barnean berehala bete dezan.

Ezarritako zigorraren aurkako edozein helegitea jarrita ere, zigorra berehala bete beharko da.

Ezarritako zigor ekonomikoen zenbatekoa kenduko da esleipendunari ordaindu beharreko hileko ordainsaritik edo, bestela, behin betiko bermetik. Zigorren zenbatekoa urtero gehituko da Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumoko Prezioen Indizeari jarraikiz. Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen du indize hori.

## **22.- KONTRATUA BALIOGABETZEA.**

Kontratua baliogabetzea erregulatuko duten arauak Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 124. eta 125. artikuluetakoak izanen dira, bai eta lege gorputz bereko 165. eta 166. artikuluetan xedatutakoak ere, baldin eta 167.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz kontratu honen izaerarekin bateragarriak badira.

## **23.- KONTRATUA BETETZEA ETA HORREN XEDE DIREN ZERBITZUAK JASOTZEA.**

Kontratua iraungiko da hura bukatzen denean, aurretik ezarritako epea iragan ondoren edo, bestela, luzapena bukatzen denean, betiere plegu honen hirugarren klausulan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa baztertu gabe, kontratua betetzen ari dela egiaztatzeko, Administrazioak harrera edo adostasun egintza egingen du, kontratua bukatu eta hurrengo hilabetearen barnean.

## **24.- BERME ALDIA.**

Hornidura behar bezala egiten ari dela egiaztatzeko berme aldia 30 egunekoa izanen da — harrera edo adostasun egintzaren datatik aurrera— edo, behar denean, esleipendunak bere eskaintzan zehaztutakoa, handiagoa bada.

Berme aldi horretan, kontratistarena izanen da egindako lan edo prestazioetan gertatzen ahal diren akatsen erantzukizuna.

Administrazioak eragozpenik jarri gabe epe hori bukatuta, kontratistaren erantzukizuna bukatuko da, eta esleipendunak emandako behin betiko bermea itzuliko da.

## **25.- HIRUGARRENEI LAGATZEA.**

Esleipendunak kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izanen dizkio, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira eta ondoko baldintzak betetzen badira.

a) Kontratazio organoak lagapenari baimena ematen badio, aldeztu aurretik eta berariaz.

- b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 edo gehiago gauzatu izana.
- c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea eta, gutxienez ere, lagatzaileak adinako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala izatea, eta ez egotea kontratatzeko debekua erakartzen duen ezein egoeratan.
- d) Kontratatista eta lagapen-hartzaileak lagapena formalizatzea.

## **26.- ARBIZUKO ETA LAKUNTZAKO UDALEN ABANTAILAK**

1. Kontratazio organoaren bidez (Jarraipenerako Bitariko Batzordea), Arbizuko eta Lakuntzako Udalek ondoko abantailak izanen dituzte:

- a) Kontratua interpretatzea.
- b) Kontratua betetzean sortzen ahal diren zalantzak ebaztea.
- c) Interes publikoari dagozkion arrazoiengatik kontratua aldatzea.
- d) Kontratua baliogabetzea ebaztea eta horren ondorioak zehaztea.

2. Ebazpenei helegiteak jarri ahalko zaizkie, 36. klausulan xedatutakoari jarraikiz. Hala ere, ebazpen horiek berehala betearaziko dira.

## **27. KONTRATUARI BEHATZEA ETA GAUZATZEA.**

Osasun Alorraren bidez, kontratatu diren zerbitzuen ikuskapena eta behaketa eginen ditu Udalak. Zeregin horretarako, esleipendunak erraztasunak jarriko ditu lan prozesu edo fase guztiak bisitatzeko eta aztertzeko, bai eta eginkizun horiek gauzatu ahal izateko behar diren bitarteko guztiak jartzeko ere.

Une oro, kontratatista ezinbestean bete beharko ditu lanen jarraipena egiteko izendatutako langileek idatziz ematen dizkieten agindu eta argibideak, bai lanak egiteko orduan, bai haiek egiteko eran. Horiek guztiak idatzita geldituko dira frogatu moduan.

Lanak eginen dira klausula hauei eta kontratuaren oinarri diren Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguari zorrotz jarraikiz. Era berean, esleipendunak aurkeztutako eskaintzari eta lanaren ardura duten langileek emandako argibideei jarraikiz eginen da. Era berean, kontratatista men eginen die indarreko legediak Administrazio kontratugileari kontratua interpretatu, aldatu eta baliogabetzeko ematen dizkion eskumenei.

Aurreko ondorioetarako, zerbitzua ematen hasi baino lehen, esleipendunak alderdi teknikoak jasotzen dituen Laneko Plan bat aurkeztu beharko du. Alderdi tekniko horiek kontratua esleitzeko oinarri izan dira, eta Plegu honen hamaseigarren klausulan daude. Osasun alorrak ondorio horretarako txostena eman ondoren, Entitate honen Alkateak plana onartuko du zazpi egun naturaleko epean, hura aurkeztu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Era berean, Osasun Alorrak eskatuta, egoki jotzen dituen aldaketak egin ahalko ditu Entitateak, betiere arrazoiak emanez eta esleipendunari entzun ondoren.

## **28.- ARRISKUA ETA MENTURA.**

Kontratu hau esleipendunaren arriskuan eta menturan gauzatuko da, eta horrek ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izanen zerbitzua behar bezala ez emateko gertatzen ahal diren bat-bateko inguruabarrengatik edo aurreikus ezin daitezkeen arrazoiengatik.

Esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izanen kontratua gauzatzean gertatzen ahal diren galera, matxura edo kalteengatik.

Kontratatistak, orobat, ezin izanen du, inolako aitzakiaren izenean, ezta akatsa egiteagatik edo ahazteagatik ere, bere eskaintzan finkatutako prezioetako bakar batean ere gehikuntzarik erreklamatu.

Era berean, kontratista izanen da egindako lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratua gauzatzean izandako omisioak, hutsegiteak, metodo desegokiak edo zuzenak ez diren ondorioak direla-eta administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere.

## **29.- KONTRATISTAK LAN, GIZARTE EDO INGURUMEN ALORRETAN DITUEN BETEBEHARRAK.**

Kontratista beharturik dago lan, gizarte segurantzaren eta lan segurtasun eta osasun arloetan indarra duten xedapenak betetzera.

Kontratista aipatutako betebeharrak bete ezean edo horrek izendatutako langile teknikariek segurtasunari buruzko xedapenak urratuz gero, Administrazio kontratugileak ez du horren gaineko inolako erantzukizunik izanen.

## **30.- KONTRATUA ALDATZEA.**

Enpresa esleipendunak zein Udalak jarduera garatzeko eta gauatzeko egokitzen jotzen dituzten hobekuntzak proposatu ahalko dituzte, beti idatziz eginda. Proposatuko hobekuntza aintzat hartuz gero, 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 105. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedurei jarraikiz jokatuko da.

## **31.- ADMINISTRAZIO KONTRATUGILEARI EMAN BEHARREKO LAGUNTZA.**

Kontratatistak Administrazio kontratugileari kontratuaren xedea garatzeko eta betetzeko horrek beharko dituen zerbitzu profesional guztiak emanen dizkio kostu gehigarririk gabe, besteak beste: azalpen bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea, etab., harik eta kontratua bukatu arte.

## **32.- LANGILEAK ETA BITARTEKO INSTRUMENTALAK.**

Kontratatzen diren zerbitzuak emateko beharko diren langile guztiek beren eginkizunei dagokien gaitasun titulua edo titulu profesionala izanen dute, eta soilik kontratatistaren kargura egonen dira kontratua gauatzeko behar diren langileak eta bitartekoak.

## **33.- ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA LEGEDI OSAGARRIA.**

Kontratatzen diren betebeharrak edo erantzukizunak eta bi alderdi kontratugileek elkarri ematen dizkioten eskubideak kontratazio prozedura hau arautzen duten Klausula Administratibo Partikularren eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguetan daude, eta, legedi osagarri gisa, prozeduraren xedeari buruzko gaiari aplikatzen ahal zaiona.

## **34.- JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK.**

Kontratu honek izaera administratiboa duenez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioarena izanen da kontratua eta horren aplikazioan egoten ahal diren egintzak berrikustea. Horrenbestez, kontratuaren gauzatzetik eta pleguaren xedapenak interpretatzetik sor daitezkeen gorabeherak oro kontratazio organoak ebartziko ditu, lehenik eta behin, eta horrek hartutako ebazpenen kontra ondoko errekurtsuak jarri ahalko dira aukeran.

- berraztertzeo errekurtsua, lizitazio hau esleitu duen Arbizuko Udaleko organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, edo, hala bada, hura argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Lizitaziotik kanpo utzi edo beren asmoei kalte egiten dieten izapidetze egintzei edo behin betiko egintzei dagokienez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen, uztailaren 2koaren, 232.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eta zehaztutako aurkaratze bitartekoak baztertu gabe, kontratua lizitatzeko eta esleitzeko interesa dutenek Kontratazio Publikorako Batzordeari kontratazio publikoari buruzko erreklamazioa zuzendu eta alde zuzenetik kautelazko neurriak eskatu ahalko dizkiote. Hori guztia egingen da Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen Hirugarren Liburuan xedatutakoari jarraikiz, han ezarritako baldintzan betetzen badira. Era berean, erreklamazio bide hori erabili ahal izateko, lizitazionalak posta elektronikoko helbide bat eman beharko du bitarteko telematikoen bidez jakinarazpenak egiteko, Klausula Administratibo Partikularren Plegu honen 12. klausulan xedatzen den bezala.

Arbizu-Lakuntzan, 2015eko uztailaren 23an  
Idazkaria/kontu-hartzailea,

## I. ERANSKINA. AURKEZPENA EGITEKO EREDUA

---

---

Izena: ..... NAN: .....  
Herria: ..... Helbidea: .....  
Ondokoaren ordezkaria (beharrezkoa bada): .....  
Herria: ..... IFZ: .....  
Tel.: ..... Faxe: .....  
Posta elektronikoa: .....  
Aitortzen dut **ARBIZU-LAKUNTZAKO KATTUKA HAUR ESKOLARI JANARIZ HORNITZEKO ZERBITZUA** kontratatzeko baldintza pleguen berri izan dudala.

### ADIERAZTEN DUT:

Erreferentzia prozeduraren berri izanda eta bertan parte hartzeko eskatzen diren Klausula Administratibo eta Teknikoen Plegua ezagututa, proposamena barnean duen gutun-azala erantsi dudala, barnean ondoko hiru gutun-azalak ere dituen:

- 1. **gutun-azala:** Dokumentazio pertsonala
- 2. **gutun-azala:** Proposamen teknikoa
- 3. **gutun-azala:** Eskaintza ekonomikoa

Horregatik, identifikatutako lizitazio prozeduran parte hartzea **ESKATZEN DUT**.

....., 2015eko .....aren .....(a)  
Sinadura

## II. ERANSKINA

---

---

### GAITASUNARI ETA GAINERAKO LEGE BETEBEHARREI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENAREN EREDUA

(DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOAREN 1. GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKOA)

Izena:.....

Ondoko enpresaren ordezkari izan: .....

IFZ .....

Lizitazio hau xedatzen duten Baldintza Administrazio eta Teknikoen Pleguaren 12. klausulan eskatutakoa betetzeko, ondoko **ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA** aurkezten du:

**Dokumentazio hau aurkezten den datan, goian agertzen den enpresak kontratatzeko behar diren baldintzak bete, eta, zehazki, ondokoak adierazten ditu:**

**A.-** Egintzak egiteko gaitasunari dagokionez, bere izaera juridikoa egiaztatuta eta ordezkari izan emana dituela.

**B.-** Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen, ekainaren 9koaren, 18. artikuluan kontratatzeko zerrendatzen diren debekuetako bat bera ere ez duela (N.A.O. 72. zk., 2006ko ekainaren 16koa).

**C.-** Ogasunak nahiz Gizarte Segurantzak ezarritako betebeharrak egunean dituela.

**D.-** Lan osasunari eta arriskuei aurrea hartzeari buruzko betebeharrak betetzen dituela (54.1.f artikulua), Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeak, ekainaren 9koak, xedatzen dituenak (N.A.O. 72. zk., 2006ko ekainaren 16koa).

Era berean, noizbait esleipenduna banaiz, konpromisoa hartzen dut arautzen duen pleguaren 17. klausulan eskatutako dokumentuak baditudala eta baliozkoak direla egiaztatzeko, zehaztutako zazpi egunetako epearen barnean.

....., 2015eko ..... aren ..... (a)

Sinadura

### III. ERANSKINA

---

---

#### HARREMANETARAKO PERTSONAREN EREDUA

(DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOAREN 1. GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKOA)

Mesedez, ondokoarekin jarri harremanetan:

Izena: .....

N.A.N.: .....

Helbidea: .....

jakinarazpenak bidaltzeko eta lehiaketa honen dokumentazioaren akats materialak zuzentzeko, ondoko zenbakietara:

- TELEFONOA: .....

- FAXA: .....

- E-POSTA:.....

....., 2015eko ..... aren ..... (a)

Sinadura

Sin.: \_\_\_\_\_

#### IV. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

---

---

Izena: ..... NAN: .....  
Herria: ..... Helbidea: .....  
Ondokoaren ordezkaria (beharrezkoa bada): .....  
Herria: ..... Helbidea: ..... IFZ: .....  
Tel.: ..... Faxe: .....  
Posta elektronikoa: .....

**ARBIZU-LAKUNTZAKO KATTUKA HAUR ESKOLARI JANARIZ HORNITZEKO ZERBITZUA**  
kontratatzeko baldintza pleguaren berri izanda, eta hura esleitzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintza guztiekin ados egonda, konpromisoa hartzen du horiek guztiak betetzeko, dokumentazioari zorrotz jarraikiz, ondoko baldintzetan:

Eskaintza ekonomiko gisa, ondoko kopurua proposatzen dugu .....  
.....euro (letran eta zenbakian idatzita) - BEZ gabe-, eta BEZari dagokion zenbatekoarekin gehituta (%8), ..... (zenbakian eta letran idatzita), ondoko zenbatekoa izanen da guztira .....euro (zenbakian eta letran idatzita), menu baterako.

Sin.

(DATA, SINADURA ETA ERAKUNDEAREN ZIGILUA)

**EGINBIDEA.**- Idazkaria naizen honek jarri dut argi geldi dadila Klausula Administratibo Partikularren Plegu honek, **Arbizu-Lakuntzako Kattuka haur eskolari janariz hornitzeko zerbitzua** emateko eskaintza onuragarriena kontratatzeko eginak, hemezortzi orrialde dituela, orrialde hau barne, eta Alakatearen Ebazpenak 2015eko uztailaren 23an onartu zuela.

Arbizu-Lakuntzan, 2015eko uztailaren 23an

Idazkaria